EXPTE.: B019-2021-00014

KONTRATU ADMINISTRATIBO

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; **ZERBITZUAK LEHIAKETA IREKI BIDEZ** KONTRATATZEA

BERRIZKO GAZTELEKUAREN DINAMIZAZIO, KOORDINAZIO ETA KUDEAKETA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN GAIA

1.1 Kontratuaren **gaia**, espedientean zehaztutakoekin bat etorriz, hau da:

- **Berrizko gaztelekuaren dinamizazio, koordinazio eta kudeaketa**.

Kontratua, Udal kirol teknikariak igorritako **txostenarekin** hasten da eta kontratua gauzatuko da, aipatutako txosten eta espedientean azaltzen den **Baldintza Teknikoen Agiriarekin** batera. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du, eta 2021-06-3an prestatu zuen Udal kirol teknikariak.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera:

- 92000000-1 (Aisialdi, kultura eta kirol zerbitzuak).

1.2 Kontratuaren **beharra**, espedientean zehaztutakoekin bat etorriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 28. Artikuluarekin bat etorriaz, Kirol teknikariak igorritako txostenean motibatuta dago, konkretuko bere bigarren puntuan.

1.3 **Lote beharrik** ez egotearen justifikazioa. Sektore Publikoko Kontratu Legearen 99.3 artikuluaren arabera, kontratazio organoak aukera dauka lotetan ez banatzeko, kontratu xedea, egoki argudiatzen diren arrazoiak daudenean. Kontratu honek duen edukia kontuan izanik, ez du Lotetan banatzeko aukerarik.

2. BURUTZEKO EPEA ETA LUZATZEA

Zerbitzua emoteko epea **BI (2) URTEKOA** izango da. 2021. Urteko urrian hastea aurreikusten da edonola ere, kontratua hasiko da formalizazio dokumentuan zehazten den egunean. Kontratua **URTE (1) BETEZ** luzatu egin daiteke.

Edonola ere, zerbitzua emateko egutegiak eta ordutegiak, baldintza teknikoen agiriak bere bigarren baldintzan zehaztutakoarekin bat etorriko da. Ondorioz,

Kontratazio-organoak berariaz erabakitako luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta kontratua amaitu baino **BI HILABETE** edo gehiago lehenago luzatzen bada.

Aipatzen den epea igaro bada, kontratista berandutu egin dela ulertuko da, eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik Administrazioak agindurik ematea.

3. KONTRATUAREN PREZIOA, AURREKONTUA ETA AURREIKUSITAKO BALIOA

Kontratuaren prezioa 59.253,91 € gehi 5.925,39 € (% 10 bez) izango da. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren aurreikusitako aurrekontua hurrengoa da: 65.179,30 € (% 10 bez barne). Zenbateko hau, gehieneko aurrekontua izango da, eskainitako zerbitzuentzat kontratuaren burutzeko epean, eta urteko desglosea hurrengoa izango da:

- 2021 (urria-abendua): 13.235,95 € (bez barne).
- 2022 (urtarrila-maiatza eta urria-abendua): 32.439,98 € (bez barne).
- 2023 (urtarrila-maiatza): 19.503,37 € (bez barne).

SPKLaren 100.2 artikuluan zehaztutako ondorioetarako, aurrekontuaren banaketa lan kostuak eta gainontzeko kostuen artean, Kirol teknikariak prestatutako zerbitzuaren kostu ikerketan agertzen da.

Proposatutako prezioak **ez du gainditu behar** lizitazio prezioa.

Kontratuaren aurreikusitako balioa hurrengoek osotzen dute: kontratuaren prezioa, luzatzeak eta egon litezkeen aldaketak. Ondorioz, kontratu honen aurreikusitako balioa hurrengo taulan agertzen da:

	Zenbatekoa (bez barik)
Kontratuaren prezioa	59.253,91 €
1º luzatzea	29.490,89 €
Aurreikusitako aldaketak (kontratuaren % 0,00)	0,00 €
KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA	**88.744,80 €**

SPKLaren 100.2 artikuluan zehaztutako ondorioetarako, aurrekontuaren udal kirol teknikariak prestatutako koste ikerketan xehatzen da.

Kontuan izanik, 221.000 euro edo hortik gorako aurreikusitako balioa **EZ** duen zerbitzu kontratu bat

denez, Sektore Publikoko Kontratu Legearen 22.1 b) letraren arabera, **EZ** da **erregulazio harmonizatuko kontratua**.

Bestalde, 100.000 euro baino gehiagoko zerbitzu kontratu bat **EZ** denez, sektore Publiko Kontratu Legearen 44.1 a) letra jarraituz, errekurtso berezi**a EZ du behar kontratazio gaietan**.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioari aurre egiteko, 2021eko aurrekontuetan diru nahiko dago, aurten sortaraziko den konpromisoari aurre egiteko eta dagokion kreditu atxikipena kontabilizatu da, kreditu atxikipen zenbakia behean agertzen delarik. Bestalde, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Aurrekontu partida behean agertzen da:

- 2021eko Kreditu atxikipen zenbakia: 220210002907.
- Aurrekontu partida: 3370.22707 (Gaztelekuko zerbitzua).

5. PREZIOAREN ORDAINKETA

SPKLaren 198 artikuluarekin bat etorriaz administrazioari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren, ordainduko da kontratuaren prezioa.

<u>Fakturazioaren inguruko OHARRAK</u>:

1. **Fakturaren deskribapena**: Zerbitzu bakoitzeko faktura bat jaulkiko da eta hurrengo deskribapena jasoko da:

- Gazteleku zerbitzua/HILABETEA/URTEA.

2. **Edukia:**. Fakturarekin batera aurkeztuko dira. (**Hurrengo dokumentuak aurkezten ez badira, fakturak ez dira ordainduko**).

    - Esleitutako zerbitzuan lan egiten duten langileen Gizarte Segurantzako TC-2 dokumentua.

    - P.F.E.Zren atxikipenei buruzko 110 dokumentuaren kopia.
    - Era berean, hilero aurkeztu beharko du, Gizarte segurantzaren diruzaintza orokorrari eta Ogasun Foralari ordainketak eguneratuta izatearen egiaztagiria.

3. **Faktura elektronikoa**: Aipatutako kobrantza-agiriek elektronikoki jaulki beharko dira.

SPKLaren 32. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, ondorengo datuak kontuan hartu dira,

fakturazioa egiterakoan:

- Udal kontabilitatean eskuduntza duen organo administratiboa: Udal Kontuhartzailetza.
- Kontratazio organoa: Alkatea.
- Fakturaren hartzailea: Berrizko Udala.

DIR-3 UNITATEA administrazio zentroak:

- Kudeaketa bulegoa: L01480195
- Kontabilitate bulegoa: L01480195
- Izapidetza unitatea: L01480195

4. **Epea**: Hilabete igaro ondoren (**lehen bost egunetan**) esleipendunak faktura aurkeztuko du, abenduko faktura izan ezik, hilabete honi dagokion faktura, urte bakoitzeko **abenduaren 31n** aurkeztuko da.

6. PREZIOA BERRAZTERTZEA

Ez dagokio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen SPKLaren 103tik 104ko artikuluetan xedatutakoarekin bat. Espaniar ekonomiaren dexindekzaioaren 2/2015 Legearen ondorioz aldatu dira aurreko artikuluak.

7. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, kontratatutako betekizunak bermatzeko, kontratuaren esleipenaren %5aren behin-betiko bermea osatuko du, BEZ kanpo.

Berme hori jartzeko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, SPKLaren 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako SPKLak 111 artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

II.- <u>KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA</u>

8. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA

Espedientearen izapidetzea **ARRUNTA** izango da. Izan ere, ez da premiazko deklaraziorik proposatu premia atzeraezin bati erantzuteko edo interes publikoko arrazoiengatik azkartu beharreko esleipena egiteko, SPKLren 119. artikuluak arautzen duen moduan.

Kontratu hau prozedura **IREKIAREN** bidez adjudikatuko da, SPKLn ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta bera garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

9.LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.

10.JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:.

1) Hartzailearen esku jartzea.
2) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea.

Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

11.KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte eta ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere. Kaudimena 17 klausulan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatuko eta ebaluatuko da.

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den

enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

12.ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Udal kirol teknikariaren proposamena jarraituz, kontratuaren esleipena egiterakoan, honako **ESLEIPEN IRIZPIDE** hauek hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko:

ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK, BALIO-JUDIZIO BITARTEZ NEURTU DAITEZKEENAK (Gehienez 45 puntu):

- Programa (helburuak, edukiak, metodologia, jardueren programazioa). (Gehienez 20 puntu).

- Koordinazioa; udalarekin eta kanpo eragileekin nahiz barne koordinazioa, koordinatzaile eta hezitzaileen artean. Komunikazio plana. (Gehienez 5 puntu).

- Genero ikuspegiaren eta euskararen erabilera sustatzeko metodologia eta deskribapen espezifikoa. (Gehienez 10 puntu).

- Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazio mota. (Gehienez 8 puntu).

- Hobekuntza osagarriak. (Gehienez 2 puntu).

AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK (Gehienez 55 puntu)

Puntuaziorik handiena, ekonomikoena den prezioari emango zaio eta aurkeztutako bestelako eskaintzak, formula honen arabera baloratuko dira:

PO = MaxP x (Ob/Ov)

Horrela: PO – eskaintza puntuazioa
MaxP – gehienezko puntuazioa
Ob – eskaintzarik onena.
Ov – Baloratuko den eskaintza.

BERDINKETA HAUSTE IRIZPIDEAK

Berdinketa hausteko irizpide zehatzik ez direnez arautzen, berdinketa hausteko SPKLaren 147.2 artikuluan araututakoa gauzatuko da. Berdinketa hausteko egiaztagiriak, berdinketa suertatzen denean aurkeztuko dira eta inoiz ez aldez aurretik.

13. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio organoak hurrengo kideek osotuko dute:

- Presidentea: Aitor Uriarte Zarraga.Ordezkoa: Leire Fernandez Beitia.

- Bokalak:
  - Garaine Ajuria Lasuen.
  - Leire Fernandez Beitia. Ordezkoa:. Felix Angel Martinez.
  - Severiano Alava Urquizu. Ordezkoa: Felix Angel Martinez.
  - Maite Gerenabarrena. Ordezkoa: Felix Angel Martinez.

- Mahaiaren idazkaria:

  - Ainize Elorriaga Ayuso. Ordezkoa:Aitor Uriarte Zarraga.

Edonola ere, aurreko kontratazio mahaiarekin bate ez datorren bat izendatuko balitz, kontratazio mahai hori, kontratazio organoak izendatuko luke, espediente onartzen duenean

14. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

Kontratazio honen espedientea eta hari atxikiriko dokumentazio teknikoa Udaletxean aztertu ahal izango da 9:00etatik 14:00etara, egunero, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak irauten duen bitartean, hots, egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia **Kontratazio Publikoa Euskadin plataforma** argitaratu eta biharamunetik hasita, proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.berriz.eus.

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Proposamenak **elektronikoki** aurkeztuko dira eta **Kontratazio Publikoa Euskadin plataforma**n agertzen den iragarkian zehazten den plataforma bitartez egingo da lizitazio elektroniko, egutegiko **HOGEI (20) EGUNEKO** epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Proposamenak elektronikoki ez badira aurkezten, lehiketatik baztertua izateko arrazoia izango da.

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko **sei (6)** egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez **hamabi (12)** egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 136 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, parte hartzeko eskaerak edo proposamenak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lehiatzaileek hiru **fitxero** (A,B eta C) aurkeztu beharko dituzte.

"**A" fitxeroaren azpititulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"**. Hona hemen "A" fitxeroan aurkeztu beharreko agiriak:

a) **DEUC** (Kontratatzeko europear dokumentu bakarra). (I ERANSKINA).
b) **Konfidealtasuna adierazpena** (II ERANSKINA).
c) **ABEBrako konpromisoa**, IV ERANSKINAREKIN bata etorriaz, kasu bada.
d) **Kontratuaren baldintza bereziak beteko dituen konpromisoa**. (VI ERANSKINA).

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

"**B" fitxeroaren azpititulua hau izango da: "ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK, BALIO-JUDIZIO BITARTEZ NEURTU DAITEZKEENAK"**. Hona hemen "B" fitxeroan aurkeztu beharreko agiriak:

a) Prestatuko den zerbitzuaren memoria zehatza. Memoria horretan argitasunez adierazi beharko dira baloratzen diren azpi-irizpide guztiak, besteak beste, programa, koordinazioa, genero eta hizkuntza irizpideak, zerbitzuaren jarraipena egiteko metodoa eta hobekuntzak.

Fitxero honetan automatikoki baloratuko diren irizpideekin erlazioa duen edonolako dokumenturik atxikitzen duena lizitazio prozeduratik BAZTERTUA izango da.

"**C" fitxeroaren azpititulua hau izango da: "AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK"**. Hona hemen "C" fitxeroan aurkeztu beharreko agiriak:

a) Proposamen ekonomikoa III. ERANSKINAREKIN bat etorriaz. (**Proposamen ekonomiko bakarra aurkeztuko da**).

Proposamenak sekretuak izango dira, eta lizitazio Publikoa izan arte izaera hori bermatzen duen baliabideak ezarriko dira.

<u>Aurkeztu behar den dokumentazioaren argibideak.</u>

- Hautagai bakoitzak eskaintza bat baino ez du aurkeztuko eta ezingo du aldi baterako eskaintzarik sinatu, dagoeneko banaka edo taldeka egina badu . Arau-hauste honekin ez da hautagaiak sinatutako eskaerarik onartuko.
- Proposamenak ireki eta **2 hilabeteko** epean, lizitatzaileek ezin izango dute proposamena bertan behera utzi.
- Kontraesanak, informazio falta edo akatsak dituzten proposamenak ez dira onartuko beti ere, horien ondorioz eskaintzaren funtsezko aspektuak ez badira ulertzen.
- Kontratu honen izaeragatik, ez da **proposamenen aldagai edo alternatibarik** onartuko.
- Dokumentazioak birusak baditu, proposamen hori aurkeztu duen lizitatzailea izango da horren erantzulea.

16. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

"A" ARTXIBOA IREKITZEA

Mahaiak «A» artxiboa irekiko du elektronikoki, eta hartan sartutako dokumentazioa kalifikatuko du. SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak, zuzentzeko moduko akatsak aurkitzen baditu dokumentuetan, ukitutako lizitatzaileei jakinaraziko die hori, eta **hiru (3) egun** naturaleko epea emango die akatsok zuzentzeko.

Halaber, udalaren kontratatzaile-profilean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira lizitatzaileei jakinarazitako zuzentze-eskaerak.

"B" ARTXIBOA PUBLIKOKI IREKITZEA

«B» artxiboan aurkeztutako dokumentazioa, zeina balio-iritzi baten araberako irizpideei buruzkoa baita, kontratatzaile-profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratuko den leku, egun eta ordu batean irekiko da. Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak **sei (6) egun** balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu.

Irizpide horiek balioesteko gehieneko epea **HAMABOST (15)** egunekoa izango da, irekiera-ekitaldia egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

"C" ARTXIBOA PUBLIKOKI IREKITZEA

«B» artxiboko dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak «C» artxiboa irekiko du, udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko den egunean eta orduan. Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak **sei (6)** egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz. Ekitaldi horretan, jakinaraziko da zer balioespen eman zaion balio-iritzi baten araberako irizpide bakoitzari. Horren ondorioz, “C” artxiboak bakarrik zabalduko dira, enpresek lehen fasean eskatzen diren **20 gutxieneko puntuak lortuz gero**.

ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte.

Esleipen proposamena bakarrik egingo da, hurrengo bi egoerak ez daudenean edo eta gaindituta

daudenean. Aipatuko diren kasuak agiri honen 12. Baldintzan ezarritakoari atendituz konponduko dira:

1. Berdinketa emaitza.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita **hamar (10)** egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo entitate baten izenean jardunez gero, notario-ahalordea, zeina udalak askietsiko baitu.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura beharko da, kasuan kasukoa, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera inskribatuta egotea eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna frogatzeko honako hauetako bat aurkeztu behar da: dagokion erregistro ofizialean inskribatutako eraketa- eskritura edo -dokumentua, estatutuen agiria edo sortze-egintzaren agiria, zeinean zehaztuta egon behar baita zer arauk erregulatzen duten beraren jarduera.

   Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko herritarrak, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, egoitza daukaten estatuko legerian ezarritakoaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpen baten edo egiaztagiri baten bidez, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenei jarraituz.

   Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

c) Egiaztatu behar du alta emanda dagoela jarduera ekonomikoen gaineko zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta-agiria aurkeztuz, urteko ekitaldikoa bada, edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

d) Lizitatzailearen **ekonomi eta finantza-kaudimenaren** eta **gaitasun tekniko** frogagiriak:

- Ekonomi eta finantza kaudimena (87. Art): Hurrengoen bitartez egiaztatuko da:

- **Negozioaren urteko bolumena**: **Urteko negozio bolumena** egiaztatu beharko du, kontratuaren lan esparruari dagokiona, **kontratuaren aurreikusitako balioaren berdina edo 1,5 handiagoa**. Zenbateko hori, itxitako azken hiru urteetan gutxienez baten izan beharko du.
- **Lanbide-arriskuengatiko erantzukizun- eta kalte-ordain-aseguru** bat eduki beharko da, kontratuaren aurrekontuaren berdina edo handiagoa.

- Gaitasun teknikoa (90. Art): Hurrengoen bitartez egiaztatuko da:

1) Zerbitzua ematen duten giza baliabideek baldintza teknikoen agiriak 3. Baldintzan zehaztutakoarekin bate etorri beharko da.

e) Lizitazio batean hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa-elkartea eratuta parte hartzen badute, elkartea osatzen duen bakoitzak egiaztatu beharko du gaitasuna eta kaudimena dituela, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Halaber, proposamenean zehaztuko dute kontratuaren zer zati egingo lukeen aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzak, kide guztien gaitasun- eta kaudimen-eskakizunak egiaztatzeko.

f) Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztu behar dute, zeinaren bidez onartzen baitute ordena guztietako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzea, zuzenean zein zeharka kontratutik sortzen den gorabehera orotarako, eta uko egiten baitiote lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari.

g) Zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak bete dituela egiaztatu beharko du, edo baimena eman kontratazio-organoari informazio hori zuzenean jasotzeko.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria. (VII ERANSKINA).

i) Hirugarrenen fitxa (V ERANSKINA).

j) Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazten den dokumentua.

Aurreko a), b), eta d) letretan adierazitako baldintzak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroaren edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagirien bidez froga daitezke, edo Europar Batasunaren ziurtagiri baten bidez, SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Apartatu honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman daitezke.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzaileak eskaintza kendu duela joko da. Hori gertatzen bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu eta haren ondorengo lizitatzaileari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, **hiru (3)** egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

17. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio-organoak prezio-kalitate onena aurkeztu duen lizitatzaileari egingo dio esleipena.

SPKLaren 150.3 artikuluaren arabera esleipena, dokumentazioa jaso eta **bost (5)** lan-egunetan egingo da. Ondoren jakinarazi eta kontratatzaile profilean argitaratuz.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada,Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero,eta kalte-galerak ordainduko dira.

Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

19. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ondasunak administrazioari eman aurretik eragindako galera, matxura edo kalteengatik, salbu eta administrazioa berandutze-egoeran egon bada ondasunak hartzean.

Kontratua egikaritzean, administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua adjudikatzeko akordioan udal teknikari bat izendatuko da, kontratua exekutatzearen arduraduna, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 62. Artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko honako **EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZI** hauek eskatuko dira (gizartearen, lanaren, etikaren edo ingurumenaren arlokoak zein bestelakoak):

KONTRATUA BETETZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK:

Agiri teknikoen 3. Baldintzan zehaztutakoarekin batera, giza baliabideak hizkuntza eskakizunak bete beharko dituzte eta hauen harremana bai Berrizko Udalarekin bai zerbitzuaren hartzaileeekin, hau da, nerabeekin euskara hutsean izan beharko da.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako

20. KONTRATISTAREN LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren horniduretan kontratatuko dituen langileei dagokienez, kontratista behartua dago lanaren, gizarte-segurantzaren zein laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzera, bai eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren araberako lan-baldintzak ere. Administrazioa salbuetsita geratuko da ez-betetze horren erantzukizunetik.

ENPRESA KONTRATISTEN GUTXIENEKO LAN-BALDINTZEI BURUZKO KLAUSULA SOZIALA **(3/2016 Legea)**

Kontratuak bete egin beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira. Xedatutakoa ez betetzeak ez dio erantzukizunik eragingo Udalari.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jaso ezkero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, eskatzen den informazio guztia eman beharko dela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko duela, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

21. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak izango du kontratua egikaritzeko egin beharko diren eragiketek ekarritako kalte eta galeren erantzukizuna.

22. KONTRATUEN ALDAKETA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Gorago adierazitako aldaketa horiek bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat.

23. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten badu, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere (xedapen hori Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta).

24. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta gehienez hilabeteko epean, haren harrera-ekitaldi formal eta positiboa gauzatuko da.

Kontratu honen izaera kontuan hartuta, **EZ da bermealdirik** ezartzen.

25. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

1. **Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea**

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

2. **Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea**

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren % 10en baliokidea den zigorra ezartzea.

3. **Prestazioa oker gauzatzea**

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

4. **Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea**

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

5. **Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea**

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren % 50

6. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak ukitutako langileak subrogatzearen arloan dituen betebeharrak, SPKLren 130.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

26. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan daude ezarrita.

27. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke kontratistak, baldin eta:

1) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko
2) merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak
3) kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, eta
4) SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator lagapena

28. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

Azpikontratatzeko intentzioa duten lizitatzaileek beraien eskaintzan adierazi beharko dute. **Horrela, memorian adierazi beharko dute, azpikontratatuko dituzten atalak eta azpikontratatzaileen informazioa**.

Lizitatzaileek ezin izango dute esleipen prezioaren 50% baino gehiago azpikontratatu eta azpikontratazio horrek beti ere Udalaren oniritzia izan beharko du.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza-orri honek xede duen kontratua administrazio-izaerakoa da eta azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak arautzen du; baita maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak –neurri batean, sektore publikoko kontratuei buruzko 30/2007 Legea garatzen duena- eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onetsi zen Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorrak ere (hemendik aurrera, APKLEO). Osagarri legez, administrazio zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik izan ezean, zuzenbide pribatukoak.

Baldintza-orri honetaz gain, honako agiri hauek ere kontratu-izaerakoak izango dira:

a) Baldintza teknikoen agiria eta bere eduki guzita.
b) Aurkeztutako memoria bere zehaztasun guztiekin.
c) Aukeztutako proposamen ekonomikoa.
d) Formalizazio kontratua.

Era berean, agiri honen 19. Klausulan zehaztutako betebeharrei hurrengo gaien ingurukoak:

- Hizkuntza gaia.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

30. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.

31. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen

Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

Berrizen, 2021eko ekainaren 11n

EkonomiaTeknikaria

Aitor Uriarte Zarraga

AITOR URIARTE ZARRAGA - 30645441B

Firmado digitalmente por AITOR URIARTE ZARRAGA - 30645441B
Fecha: 2021.06.11 13:41:19 +02'00'